

Hizkuntza lege proiektuaren kronika

2008ko maiatzaren 7a – Gobernuak eztabaida eraman zuen eskualde hizkuntzetaz. Legebiltzarrean adostasun bat agertu zen lege baten beharrari buruz, Sarkozy hautagaiak hitzeman zuenaren bidetik ; abiapunduak jorratuko dira bai eta ere galdera zehatzak, jokamoldeak eta baliabideak...

2008ko maiatza – Frantziako eskualde hizkuntzen legeari buruzko Plataformak biltzen ditu eskualdeetako kultura elkarte batzu eta erabaki du legegileen sustatzaile eta aholkulari izatea, neurri zehatzak proposatuz hizkuntza legea antolatzen laguntzeko. Egoera horretan, Euskal Konfederazioak abiapunduak eta neurriak finkatu ditu "lurralde" hizkuntzentzat ezinbestezkoak diren eremuetan. Erreferentzia nagusia : Hizkuntza guttituen Europako ituna.

2008ko maiatzaren 22a – Legebiltzarrak, kasik aho batez lehen irakurketan, emendakin bat onartu zuen, eskualde hizkuntzak Konstituzioko lehen artikuluan sartzeko, Frantziako ondare bezala.

2008ko ekainaren 12 – Akademia Frantsesak aho batez onartu zuen adierazpen bat Ordezkaritza nazionalari eskatuz aipamen hura ken zezan : "Xede onak dira eta beste nonbait adieraztekoak, baina ez dute lekurik Konstituzioan".

2008ko ekainaren 18a – Alderdi guztietako sanatariek eskualde hizkuntzen aipamena kentzea erabaki zuten, gehiengo handiz 216 boz alde 103 kontra. Bi ganberen arteko hautsi-mautsi bat aurkitu zuten bigarren irakurketan.

2008ko ekainaren 27a – Euskaltzaindiak adierazpen bat aho batez onartzen du Frantses Akademiari igortzeko. Laburbilduz :

- Euskara da euskaldunen berezko hizkuntza.
- Euskara, mendetan mintzatua delakotz, zor zaio legearen ezagutza eta geriza.
- Euskaltzaindiak berriz ere Frantses estatuari eskatzen dio euskarak izan dezan legezko antolamenduan, ezagutza osoa, nazioarteko hitzarmenei jarraikiz.
- Euskaltzaindiak deitoratzen du Frantses Akademia "hain bortizki eta itsuski, Frantziako eskualde hizkuntzen kasuan, Konstituzio aipamenaren aurka altxatzea".
- Euskaltzaindia prest dago herri agintariekin eta erakundeekin lan egiteko euskarak ezagutza ofiziala izan dezan Frantziako herrialde euskaldunetan. (*Ikus adierazpen osoa Plazaberri 53*).

2008ko uztailaren 21a – Parlamentuak, biltzar bateratuan, Konstituzioaren berrikuntza onartu zuen. Eskualde hizkuntzak aipatuak dira XII. atalean, Lurralde Elkargoetan, 75-1. artikuluan : "Eskualde hizkuntzak Frantziako ondare dira".

2008ko irailaren 17a – Frantziako Eskualdeen Elkarteak (ARF), eskualde hizkuntzen batzordearen bidez, (René Ricarrère batzordeburu) Estatuari dei egin dio bere eginbideak oroitaraziz eskualde hizkuntzak zaintzeko eta aitzinarazteko. Unescoren 2006ko Hitzarmenetik abiatuz, gaia kultura adierazpenen aniztasuna delarik, neurri zehatzak proposatuak dira : eskualde hizkuntzen legezko estatusa, lankidetzak jarraikia Estatua eta eskualdeen artean hizkuntza politikan, irakaskuntza ama-eskolatik unibertsitateraino, elebitasuna zerbitzu publikoetan, sorkuntza kulturala eta hedabideak eskualdeetan.

2008ko azaroaren 27 – Euskal Konferazioak Plataformako kideei igortzen die, landu zuen idazkia, "Abiapunduak eta aldarrikapenak" atalburu-pean.

2008ko urtarrilaren 27a – Michel Oronos, Euskal Konfederazioburuak gutun bat igorri zion Christine Alanel ministroari oroitarazteko hitzeman zuela lege-proiektua laster aurkeztuko zuela. Mezua : "Euskara, onarpen eta laguntza ofizialaren hil edo biziko behar gorrian da". Gutunak zion beste eskualdeak ere kezu direla legearen aiduru, nola Alsazia, hala Britainia, Okzitania, Korsika eta Katalunia.

2009ko otsaila - Euskal Konfederazioak Euskal kultura sostengatzeko herrien arteko sindikatari eta Euskararen erakunde publikoari aurkeztzen die bere idazkia: "Frantses Estatuko lurralde hizkuntzen aldeko lege bat, hizkuntza politika ausarten bultzatzeko".

2009ko martxoaren 7a – Euskal kultura sostengatzeko herrien arteko sindikatak, bere urteroko biltzarrean, Euskal Konfederazioak aurkeztu dituen oinarrizko abiapuntuak onartu zituen eta aho batez mozio bat bozkatu, Gobernuari galdetuz, 2009a bururatu aitzin, Kultura ministroak hitzeman lege proiektua aurkez dezan : lege disposizio bat, frantses zuzenbidean lurralde hizkuntzei egokitua, oinarrizko printzipioak onartuz, gure lurraldeetan hizkuntza politika nahizale eta eraginkor bat laguntzeko, lortu beharreko helburuak finkatzen dituen, eta haien betetzeko, jende eta diru ahalbidez hornitua. Euskal Herriko auzapez eta herri kontseiluak gomitatua dira araberako mozioak bozkatzera".

2009ko martxoaren 9a – Christine Alanel ministroaren bulegoburuak Euskal Konfederazioari erantzun dio hiru gai nagusi aurkeztuz (*Ikus gutun osoa 1. eranskinaean*) :

- "Forma instituzional bat nazioaren hizkuntza ondarearentzat", onarpen ofizial bat izanen dena, eskualdeetan historian zehar mintzatuak diren hizkuntzentzat.

- "Legearen gaiak dira irakaskuntza, hedabideak, kultura eta zerbitzu publikoak". Zerbitzu publikoetako elebitasuna gauza berria da, Konstituzioko 2. artikulua irakurketa irekiago bat ekar lezakeena.

- "Demokrazia kultural bat, batasuna gauzatuko duena berdintzerik gabe, baina aniztasunean" eta berehala elkarrekin eta tokiko elkargoak gomitatua dira gogoetaldi ireki batera, lege proiektuari buruz. Estatuak hitzematzen digu politika indartsu bat eskualde hizkuntzak zaintzeko eta aitzinarazteko.

2009ko maiatzaren 2a – Plataforma Parisen biltzen da idazki bateratu bat lege biltzarkideentzat prestatzeko. Ekarpen andana bat mahai gainean dago, besteak beste : Euskal Konfederazioaren abiapunduak eta aldarrikapenak, Alsaziako lege proiektua (2005), Ok kultura eta hizkuntzaren irakasleen txosten bat (Felco).

2009ko maiatzaren 2an, Elkarrekin Plataforma Parisen bildu zen idazki bateratu bat Eskualde hizkuntzetaz arduratzen den Legebiltzar multzoarteari aurkezteko, maiatzaren 20eko bilkuran. Hiru mintzagai : Printzipioen adierazpena, Alsaziarren lerge-proiektua eta informazio kanpaina.

Informazio kanpaina bat finkatua zuten Okzitanoak eta Euskaldunak, datorren urriaren 24erako, baina beste lurraldeak ez ziren bero. Lege proiektuaren

idazkeraz, gehiengoak pentsu du legegileen lana dela, baina gure testuak baliagarriak izan daitezke, proposamenak gobernuari egiteko lege-proiektuaz galdezkatuko gaituelarik.

Printzipioen adierazpena (*Ikus txosten osoa 2. eranskinean*)

Printzipioen adierazpenari buruz, adostasun ahul bat agertu zen. Idazki minimalista da, Euskal Herrian lortu dena baino askoz guttiagokoa. Euskal Konfederazioak eta Euskalim, murgilbidezko eskolen elkarteak, adierazpen alternatiba bat proposatu dute, testu adostutik abiatuz baina jatorrizko neurriak gehituz. Interneten bidezko erantzunak baikorrak dira. Atal-burua : "Frantziako eskualde edo lurralde hizkuntzak lege onartzeko". Laburbilduz adierazpenak hiru zati dauzka.

1. Zuzenbidezko printzipioak : 1789ko adierazpen askatasuna ; Konstituzioan "Eskualde hizkuntzak Frantziaren ondare" ; Europako gutuna eta ebazpenak ; Unescoren kultura aniztasunaren adierazpena.

2. Legedia berriaren arauak - Lege honek ekarriko digu hizkuntza eskubideen onarpen ofiziala. Helburua hizkuntzen bizi-iraupena da. Horretarako printzipioen adierazpenak 12 neurri proposatzen ditu : eskuduntzak eta baliabideak, irakuntza eta gizarte erabilera, hedabideak eta kulturgintza, elebitasuna zerbitzu publikoetan eta eremu sozio-ekonomikoan, mugazgaineko lankidetzak...

3. Legearen aplikazioa - Errepublikaren eremu batzuetan, eskualde hizkuntzei buruzko tratamendua aurreratuago da. Ikusten da borondate politiko bat badagoelarik arrakasta onak gertatzen direla. Beraz legea baliagarri izanen da, jarrerak aldatzen badira erabakitzaileen zerrenda osoan, Estatutik Lurralde Elkargoetaraino. Baieta ere herritarrengan : hizkuntza politikarekin batean, komunikazioa eta pedagogia bermatu behar dira publiko zabalari buruz.

Bururatzeko

2009ko maiatzaren 20 – Parisen Plataformak bi bilkuretan parte hartu du.

- Goizean legegile batzuekin. Martine Fabre diputatua da legebiltzarrean eskualde hizkuntzetaz arduratzen den multzoartearen buruzagia. Elkarretatze batera gomitatu du hizkuntzetaz arduratzen diren elkarten Plataforma. Han ziren 12 hautetsi eta hautetsi-ordezkarik, eta 14 elkartekide ordezkatuz Alsazia, Britainia, Korsika, Mosela, Euskal Herria, Okzitania, Roselloa, Oil lurraldeak, Franko-proventzera lurraldea. Printzipioen adierazpena aurkeztu da, elkarte ordezkarik gehienek izenpetua zutena. Eztabaida aberatsa izan da baina oraindik hizkuntza lege berriaren agenda ez da finkatua

- Arratsaldean bilkura Frantziako Eskualdeen Elkartearen (ARF) egoitzan. Jean-Pierre Thomas, elkarte-buru-ordearen hitzetan, Lurralde elkargoek eskatzen dute hizkuntzen eskuduntza, baina arabiarako baliabideak eskuratuz. Hizkuntzak antolatuko dira berdintasuna ezarri eskualde aitzinatuenen heinean.

2009an noizbat – Lege proiektua agertuko delarik, orain arteko gogoetaldia areagotuko da. Agian, sortuko den hizkuntza politika, lurraldeetan adierazten den itxaropenaren heinekoa izanen da.

1. eranskina

Christine Albanel, Kultura eta komunikazio ministroaren gutuna (itzulpena)

Errepublika Frantsesa, Kultura eta Komunikazio Ministeritza

Kabinete zuzendaria

2009ko martxoaren 9a
Michel ORONOS Jaunari
Euskal Konfederazioko elkarteburua
1, Arsenal plaza, 64100 BAIONA

Jaun Elkarteburua,

Christine Albanel, Kultura eta Komunikazio Ministroari oroitarazi diozu Frantziako eskualde hizkuntzen onarpenaren gaia.

Andere Ministroak arretaz kontuan hartu du zure gutuna eta eskertzen zaitu. Oiroitarazi nahi dizu hemendik aurrera, eskualde hizkuntzak sartuak direla Konstituzioaren lehen (!) artikuluan Herriaren ondare bezala. Berresten dizu, Gobernuaren xedea dela, hizkuntza horiek onartzeagatik, erreferentziazko marko bat finkatzea molde instituzional bat emateko nazioaren ondare linguistikoari

Halaber, 2008ko maiatzaren 7an, Gobernuaren izenean hitzeman nuen eskualde hizkuntzei buruzko lege-proiektuaren gaiak direla, irakaskuntza, kultura, hedabideak eta zerbitzu publikoak eta aurten berean legebiltzarrari aurkeztua izanen zaio, eguna ez delarik oraindik finkatua.

Beraz lege-proiektu hau gogoeta sakon baten gaia izanen da eta ekarpen guztiak, hala eskualde hizkuntzen aitzinamenduaz arduratzen diren elkarteenak, nola lurralde elkargoenak, aztertuko eta baliatuko ditugu. Ekarriko diren azterlanek eta proposamen baikorrek, eztabaida eta gogoeta elikatuko dituzte, helburua delarik neurri beharrezkoak eta egokiak erabakitzea, eskualde hizkuntzak babesteko eta sustatzeko.

Oraindanik Andere Ministroa pozik dago, gai honetaz arduratzen diren guztiak parte-hartuko dutelakoan legea lantzen, lankidetzaz honek aitzinaraziko baitu gure herriko demokrazia kulturala. Segurtatzen dizu, Estatuak, nahikundezko hizkuntza politika eramanez eta alor henetan legezko antolaketa berezi bat ezarriz, batasuna gauzatuko duela, berdintzerik gabe, baina aniztasunean (*réaliser l'unité, non dans l'uniformité, mais dans la diversité*).

Olivier BREUILLY

3 rue de Valois, 75033 Paris cédex 01, France- Téléphone 01 40 15 80 00

2. eranskina

Printzipioen adierazpena

Frantziako eskualde hizkuntzen aldeko legezko estatutua

(laburpena)

Aitzin solasa

Hizkuntza eta kultur aniztasunaren zaintzea gizadiaren erronka nagusienetariko bat da. Konstituzioko 75-1 artikulua eskualde hizkuntzak Frantziako ondarearen parte direla adierazten du. Frantziak lehen urrats garrantzitsua egin du. Artikulu hori lege berri batekin osatu behar da, gure hizkuntzak legedian sartuko dituen eta hizkuntza politika ausartak eta eraginkorrak ekarriko dituen lurraldeetan.

Zuzenbidezko printzipioak

- Komunikazio askatasuna : "herritar orok hitz-egin, idatz eta inprima dezake askatasunean" (1789ko adierazpenaren 11. artikulua).
- Hizkuntza eta kultura aniztasunaren errespetua, Oinarritzko eskubideen Europar gutunak onartzen duen printzipioa da (24. artikulua).
- Hizkuntzen balio berdina eta hiztunen duintasun berdina : hiztun oro berdintasunean hartuko da, orok baitu bere hizkuntza ikasteko eta irakasteko, erabiltzeko eta aitzinarazteko eskubidea, eremu pribatuan zein publikoan.

Kontuan hartzekoa da ere nazioarteko hizkuntza zuzenbidea, besteak beste Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako gutuna (1992) eta Kultura aniztasunaren aldeko adierazpen nagusia (Unesco 2001).

Legeria berriaren arauak

Lege honek ekarriko digu hizkuntza eskubideen onarpen ofiziala. Helburua hizkuntzen bizi-iraupena da. Beraz jarraipen naturala berrezartzea behar gorria da, etorkizuna segurtatzeko :

1. Hizkuntza politikarako egitura eskudunak dira Estatua eta Lurralde elkargoak. Eskualde hizkuntzen iraupena zainduko dute, Frantziaren ondarea baita.
2. Lurralde elkargoek egiturak eta baliabideak eskuratuko dituzte, erantzukizun politikoak betetzeko lurraldean berezkoak diren hizkuntzen alde.
3. Lurralde elkargoek ofizialki onetsiko dituzte, frantsesaren sahetsean, lurraldean berezkoa den hizkuntza, Rosello eta Britainia jarraibidetzat hartuz.
4. Hizkuntzen jarraipena segurtatuko da, familiaren, eskolaren eta gizartearen bidez, hezkuntza elebiduna zabalduz lurralde osora, ama-eskolatik unibertsitateeraino, murgilbide moldean edo eredu elebidun parekatuan.
5. Lanbide heziketa eta goi mailako ikaskuntza. Unibertsitateetan, formakuntza ikasketak eskainiko dira lurralde hizkuntzetan eta gaitasun agiriak banatuko dira Europa mailako erreferentzia ereduak baliatuz. Lurralde hizkuntza bakoitz irakas-agiri bat antolatuko da.

6. Jende helduen ikaskuntzak badu garrantzi estrategiko bat lurralde hizkuntzen onetan, nola lanbide heziketan, hala haurren hezkuntzan, gizarte komunikazioan eta etorkin berrien integrazioan.
7. Lurralde hizkuntzen gizarte erabilera zabalduko da bizitza publikoaren eremuetan, elebitasuna bermatuz administrazio eta zerbitzuetan, aizinaldietan ...
8. Lurralde hizkuntzak erabiliko dira bizitza ekonomikoan : lanbideetan, lan munduan, kontsumatzaileen eta zerbitzu erabiltzaileen informaziorako...
9. Informazio eta komunikazio hedabideen askatasuna errespetatuz, neurriak ezarriko dira, hedatzaile publikoek eta pribatuek emankizun jarraikiak programa ditzaten lurralde hizkuntzetan, bai eta ere artikuluak zabal ditzaten aldizkarietan.
10. Lurralde kulturetan sorkuntza sustatuko da politika berezi baten bidez, argitalpena, antzerkigintza, zinema, musika eta beste, eta obra horien hedapena lagunduko da eskualdeetako hiztunentzat eta bestentzat, itzulpenak eta azpigitulazioak erabiliz.
11. Eskualde hizkuntzazko ingurumena baloratuko da jatorrizko toponimia erabiliz, iragarki tauletan, seinalkuntza elebiduna hedatuz eremu publikoetan, kadastraren bidez ...
12. Mugaz gaineko lankidetzak antolatuko da, hizkuntza berdina edo berdintsua erabiltzen duten lurraldeen artean. Europako fondo baten bidez diru laguntzak banatuko dira lurralde hizkuntzak garatzeko.

Legearen aplikazioa

Errepublikaren eremuetan, eskualde hizkuntzei buruzko tratamendua ez da orotan berdina. Ikusten da borondate politiko bat badagoelarik aitzinamenduak gertatzen direla. Beraz legea baliagarri izanen da, jarrerak aldatzen badira erabakitzaileen zerrenda osoan, Estatutik Lurralde elkargoetaraino. Botere publikoen borondate onak menderen mende mespretxua jasan duen pentsamoldea onera alda lezake guztiongan. Hizkuntza politikarekin batean, komunikazioa eta pedagogia eraman behar da publiko zabalari buruz.

Gure eskaerak Estatuari eta Lurralde elkargoei norabidetuak dira, udalerrri, udalarte, departamendu ala eskualdei. Egitura bakoitzak bete dezala bere esku den erantzukizuna.